



**ORIOKOUNDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2012ko otsailaren 23a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 21:00

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) ez du bilkuran parte hartu, herritik kanpo dagoelako.

## Gai-zerrenda

- 1.- Jose Angel Iparragirre Alberdi Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentzialaren berri ematea eta hark zinegotzi kargua jabetzan hartzea, egoki bada; Jose Angel Iparragirre Alberdi Orioko Aukera Independentea (ORAIN) hautesle elkarteko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Jokin Izagirre Zabalaren ordeiz.



- 2.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2011ko abenduaren 29ko ohiko bilkurakoa eta 2012ko urtarrilaren 30eko ezohiko bilkurakoa.
- 3.- Berrestea, egoki bada, urtarrilaren 31ko 40/2012 alkate-dekretua. Dekretu horren bidez, Orioko Udalak bat egiten du Gipuzkoako Kontratazio Zentralarekin.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2012ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Muntoko 8. sektorean dagoen udal futbol zelaiaren azpiko 20,67m<sup>2</sup>ko 6 aparkaleku-plaza itxiren salmenta.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko parke eta lorategien mantentze zerbitzua kontratatzeko baldintza administratibo berezien plegua eta baldintza teknikoen plegua.
- 8.- Onartzea egoki bada, baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegua, Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeko: gimnasiaorako makinak, ergometroak, errendimendu handirako teknologia eta hipoxia sistema intermitentea.
- 9.- Onartzea egoki bada, baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegua, Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeko: altzari komertzialen eta aldagelen ekipamendua.
- 10.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Arraunketa Elkarteko arraunlari paralinpiarrek Londresko 2012ko Paralinpiar Jokoetan parte hartzeari buruz.
- 11.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

**1.- JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA ADIERAZTEN DUEN KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA HARK ZINEGOTZI KARGUA JABETZAN HARTZEA, EGOKI BADA; JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA (ORAIN) HAUTESLE ELKARTEKO ZINEGOTZI IZANGO DA, BERE KARGUARI UKO EGIN DION JOKIN IZAGIRRE ZABALAREN ORDEZ.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Jose Angel Iparragirre Alberdi Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentziala eman du Hauteskunde Batzorde Zentralaren presidentek; Jose Angel Iparragirre Alberdi Orioko Aukera Independentea (ORAIN) hautesle elkarteko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Jokin Izagirre Zabalaoren ordean, eta, aldez aurretik, Mikel Aranzabal Urbietak zinegotzi-karguari uko egin ondoren.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Jose Angel Iparragirre Alberdik eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jardueri buruzko aitortpena eta ondasunen aitortpena. Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina aldez aurretik eginda, Jose Angel Iparragirre Alberdik Orioko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, Orioko Aukera Independentea (ORAIN) hautesle elkartearen izenean.

## **2.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2011KO ABENDUAREN 29KO OHIKO BILKURAKOA ETA 2012KO URTARRILAREN 30EKO EZOHIKO BILKURAKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO];** gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2011ko abenduaren 29ko ohiko bilkurakoa eta 2012ko urtarrilaren 30eko ezohiko bilkurakoa.

## **3.- BERRESTEA, EGOKI BADA, URTARRILAREN 31KO 40/2012 ALKATE-DEKRETUA. DEKRETU HORREN BIDEZ, ORIOKO UDALAK BAT EGITEN DU GIPUZKOAKO KONTRATAZIO ZENTRALAREKIN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren bitartez (43. GAO, 2011ko martxoaren 4koa), kontratazio zentralizatuko sistemaren araudia onartu eta Foru Kontratazioen Zentrala sortu du, kontratazioarako laguntza organo bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako eta horien menpeko entitateetako nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkion neurrian. Foru Kontratazioen Zentralak laguntza emango die aipatu entitateei beren ezaugarriengatik erabilera orokorrekoak diren ondasun, zerbitzu eta horniduren kontratazioan.



Foru Kontratazioen Zentrala sortuta, alde batetik, aipatu kontratuetan baldintza ekonomiko hobeak lortu nahi dira, eta horrela kontratazio zentralizatuko sistema sortu berriari atxikitzen zaizkion entitateen gastu publikoa txikitu; eta, beste aldetik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa sinplifikatu nahi da, aldi berean kontratazio gaietan gardentasuna eta segurtasuna indartuz.

Aurreko atalean aipatutakoaren harian, Foru Kontratazioen Zentralaren helburu nagusia honako hau da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateei eta horien menpeko entitateei nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateei, kontratatu behar dituzten ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatzeke lanak erraztea, horretarako kostuak gutxitu, eskuratzeko denborak laburtu eta tramiteak sinplifikatu ditzakeen sistema bat antolatuta.

Hitzarmen baten bitartez, Orioko Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratzeko zentralizatuko sistemari atxikituko zaio; beraz, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez kontratatu ahal izango ditu zehazten diren ondasun, zerbitzu eta hornidurak, horrelakoak kontratatzeke garaian Foru Aldundiak enpresa esleipendunekin egiten dituen esparru akordioetan ezarritako baldintzetan eta prezioetan.

Atxikipenak ez dakar berekin kontratazio guztiak Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez egin beharrik; Orioko Udalaren esku dago sistema hori ondasun, zerbitzu edo hornidura guztietarako edo batzuetarako bakarrik erabili erabakitzea.

Nolanahi ere, Orioko Udalak zein ondasun, zerbitzu edo hornidura kontratatzeke esparru akordiotan sartzen den argitu behar du, kasuan kasuko esparru akordioaren baldintza-agiriak onartu baino lehenago Orioko Udalaren organoak, akordio horri atxikitako entitate bezala agertzeko. Edozein esparru akordiori atxikitzeak haren indarraldi osorako izango du balioa.

Ildo berean, Orioko Udalak sartuta dagoen esparru akordio batetik atera nahi badu, hartatik bereizten dela jakinarazi ahal izango du, esparru akordio hori berriro lizitatzeko asmoa dagoela adierazten zaionean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**BERRESTEA** urtarrilaren 31ko 40/2012 alkate-dekretua. Dekretu horren bidez, Orioko Udalak bat egiten du Gipuzkoako Kontratazio Zentralarekin.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2012KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza eta, EAJren izenean, bi argibide eskatzen ditu Udalaren aurrekontu propioaren gastu-mailari buruz; bata, udal baratzeeen erabilpena sustatzeko 95.600 euroko aurrekontu-partida dela-eta eta, bestea, gai honi buruz: aurrekontuan ez dagoela aurreikusita Foru Aldundiari itzuli beharreko 2011ko Udal Finantzaziorako Foru Funtzari (UFFF) dagokion 355.976,20 euroko aurrekontu-partida.

Argibideak jaso ondoren, Jon Redondo zinegotziak berriro hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango diola 2012ko Udalaren Aurrekontu Orokorraren onarpenari, honako arrazoiengatik:

- Alkatetzak prestatutako aurrekontu propioaren gastu-maila ez dator bat Udaleko idazkari-kontu-hartzaileak emandako txostenean 2012rako aurreikusitako sarreraren estimazioarekin. Estimazio horren eta aurrekontuaren arteko desbiderapena, gutxi gorabehera, milioi bat eurokoa da. EAJren ustez, bizi dugun krisi ekonomiko egoera larri honetan, oso zaila izango da Orioko Udalak biltzea idazkari-kontu-hartzaileak aurreikusitako kopurua ere eta, zer esanik ez, alkateak aurkeztu duen aurrekontuaren aurreikuspena betetzea, idazkariaren estimazioa baino 840.000 euro gehiagoko diru-sarrerak aurreikusten ditu-eta.

- EAJren ustez, ez lirateke gastu arruntetan gertatzen diren aurrekontu-desbideraketak finantzatu behar diruzaintzako soberakinen kargura, zeren eta, bizi dugun krisi ekonomiko egoera larrian, ekonomia suspertzeko, koherenteena eta arrazoizkoena Udalaren inbertsioak sustatzea baita; hau da, justu alkateak prestatu duen gastuen aurrekontuan islatzen denaren kontrako. Izan ere, Udalaren gastuen aurrekontuan %35 gutxitu da inbertsioen kapitulua (6. kapitulua) 2011ko aurrekontuarekiko eta %7 handitu da ondasun arruntetan eta zerbitzuen erosketaren kapitulua (2. kapitulua).

- EAJ oso kezkatuta dago Udaleko idazkari-kontu-hartzaileak 2012ko aurrekonturako egin duen diru-sarreraren estimazioaren eta alkatetzak aurkeztu duen gastuen aurrekontuaren artean dagoen desbideraketarekin. Bere ustez, koherenteena eta arrazoizkoena izango litzateke alkateak prestatutako 2012ko udal aurrekontu propioaren sarrerak eta gastuak ahalik eta gehien hurbiltzea Udaleko idazkari-kontu-hartzaileak egindako txostenean aurreikusitako diru-sarreraren kopurura.

Alkateak hartzen du hitza eta, Bilduren izenean, honako hau adierazten du, EAJren ordezkariak esandakoari erantzunez:

- Bilduk beti izan du jarrera irekia EAJren proposamenak jasotzeko, 2012ko udal aurrekontu propioaren eztabaidan. EAJkoek nahiko denbora izan dute beren proposamenak aurkezteko eta egin duten bakarra izan da, azken orduan, orri bat aurkeztea beren proposamen batzuekin.

- Inbertsio errealei dagokienez, beren proposamenean egin dutena izan da dagoena zaindu eta optimizatzea.

- Nahiago izango zuen EAJ talde politikoa abstenitu izan balitz 2012ko udal aurrekontu propioa onartzeko bozketan, kontrako botoa emateko partez.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluak, honako hau da:

### ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	944.700
2	Zeharkako zergak	280.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.487.818
4	Transferentzia arruntak	3.135.966
5	Ondarezko diru-sarrerak	379.739
6	Inbertsio errealen besterentzea	1.719.232
7	Kapital transferentziak	1.278.594
<b>GUZTIRA</b>		<b>9.226.049</b>

### GASTUEN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.707.841
2	Ondasun arrunten erosketak	2.139.077
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	1.157.559
6	Inbertsio errealak	2.911.320
7	Kapital transferentziak	86.506
9	Finantza pasiboak	223.686
<b>GUZTIRA</b>		<b>9.226.049</b>

### ORIO GARATZEN SL UDAL SOZIETATEAREN AURREKONTUA SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
5	Ondarezko diru-sarrerak	5.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>5.000</b>



## GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
2	Ondasun arrunten erosketak	5.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>5.000</b>

## AURREKONTU FINKATUA SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	944.700
2	Zeharkako zergak	280.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.487.818
4	Transferentzia arruntak	3.135.966
5	Ondarezko diru-sarrerak	384.739
6	Inbertsio errealen besterentzea	1.719.232
7	Kapital transferentziak	1.278.594
<b>GUZTIRA</b>		<b>9.231.049</b>

## GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.707.841
2	Ondasun arrunten erosketak	2.144.077
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	1.157.559
6	Inbertsio errealak	2.911.320
7	Kapital transferentziak	86.506
9	Finantza pasiboak	223.686
<b>GUZTIRA</b>		<b>9.231.049</b>

**2.- ONARTZEA** Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua.

**3.- JENDAURREAN JARTZEA** Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontu Orokorra, Aurrekontu Propioa eta ORIO GARATZEN SL Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontua biltzen dituen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen



Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

**a) Ikusgai dagoen tokia:** Udaleko Idazkaritza–Kontu-hartzailetzan.

**b) Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatze arrazoiak:** Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

**f) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2012KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Oriko Udalaren 2012ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

**2.- ARGITARATZEA**, guztien jakinerako, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 127. artikuluan, eta Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 16. artikuluan xedatutakoa betez.





## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO MUNTOKO 8. SEKTOREAN DAGOEN UDAL FUTBOL ZELAIAREN AZPIKO 20,67M2KO 6 APARKALEKU-PLAZA ITXIREN SALMENTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Muntoko 8. sektorean dagoen udal futbol zelaiaren azpiko 20,67m2ko 6 aparkaleku-plaza itxiren salmenta (68; 77; 129; 138; 267; 286 zenbakiak). Horien prezioa 25.054,55 eurokoa izango da (BEZa kanpo).

**2.- INDARREAN MANTENTZEA** Orioko Muntoko 8. sektorean dagoen udal futbol zelaiaren azpiko aparkaleku-plaza itxien salmenta arautzen duten baldintza-orri juridikoak eta ekonomiko-administratiboak, udalbatzarrak 2008ko abenduaren 23an egindako ezohiko bilkuran onartutakoak, prozedura administratibo honi aplikagarriak diren neurrian.

**3.- AHALMEN ZABALA EMATEA** Orioko alkateari garaje horien salerosketa-eskritura publikoak sinatzeko Orioko Udalaren izenan, dagokion jabetza-erregistroan erabat inskribatu arte.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO PARKE ETA LORATEGIEN MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko parke eta lorategien mantentze zerbitzua kontratatzeke baldintza administratibo berezien plegua eta baldintza teknikoaren plegua.

**2.- ARGITARATZEA** baldintza orrien laburpen hau, Sektore Publikoen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legearen 142. artikulua xedatutakoaren arabera:

### **1. Erakunde adjudikatzailea:**

a) Erakundea: Orioko Udala.



b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza.

## **2. Kontratuaren helburua:**

a) Helburuaren azalpena: Orioko parke eta lorategien mantentze zerbitzua, baldintza teknikoen eta ekonomiko-administratiboen arabera egingo dena.

b) Exekuzio epea: Epea: 2 urte. Beste 2 urteko luzapenak. Beti ere gehienez 4 urtekoa izango da.

## **3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:**

a) Tramitazioa: Erregulazio bateratua.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

## **4. Lizitazioaren kopurua:**

166.571 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

## **5. Garantiak:**

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren %5 (BEZ kanpo).

## **6. Iragarki gastuak:**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

## **7. Agiriak jasotzeko:**

Espedienteko dokumentazioa Orioko Udaleko Idazkaritzan aztertu daiteke.

## **8. Eskaintzak aurkezteko:**

a) Epea: 2012ko apirilaren 12an amaitzen da.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza–Kontu-hartzailletzan. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

## **9. Eskaintzen irekiera:**

a) Tokia: Orioko udaletxea.



b) Eguna: 2012ko apirilaren 19a.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

**8.- ONARTZEA EGOKI BADA, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, ORIOKO ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO: GIMNASIORAKO MAKINAK, ERGOMETROAK, ERRENDIMENDU HANDIRAKO TEKNOLOGIA ETA HIPOXIA SISTEMA INTERMITENTEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoek plegua, Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeke: gimnasiaorako makinak, ergometroak, errendimendu handirako teknologia eta hipoxia sistema intermitentea.

**2.- ARGITARATZEA** baldintza orrien laburpen hau, Sektore Publikoen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legearen 142. artikulua xedatutakoaren arabera:

**1. Erakunde adjudikatzailea:**

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza.

**2. Kontratuaren helburua:**

a) Helburuaren azalpena: Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeke: Gimnasiaorako makinak, ergometroak, errendimendu handirako teknologia eta hipoxia sistema intermitentea, baldintza teknikoek eta ekonomiko-administratiboen arabera egingo dena.

b) Exekuzio epea: Epea: 2 hilabete

**3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:**

a) Tramitazioa: Erregulazio bateratua.

b) Prozedura: Irekia.



c) Era: Lehiaketa.

#### **4. Lizitazioaren kopurua:**

1. lotea: Gimnasia makinak: 201.552,26 euro BEZa barne. Lizitzaileek hobe dezakete kopuru hori.

2. lotea: Ergometroak: 69.694,34 euro BEZa barne. Lizitzaileek hobe dezakete kopuru hori.

3. lotea: Errendimendu handirako teknologia: 70.575,80 euro BEZa barne. Lizitzaileek hobe dezakete kopuru hori.

4. lotea: Hipoxia sistema intermitentea: 94.400 euro BEZa barne. Lizitzaileek hobe dezakete kopuru hori.

#### **5. Garantiak:**

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren %5 (BEZ kanpo).

#### **6. Iragarki gastuak:**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

#### **7. Agiriak jasotzeko:**

Espedienteko dokumentazioa Orioko Udaleko Idazkaritzan aztertu daiteke.

#### **8. Eskaintzak aurkezteko:**

a) Epea: 2012ko apirilaren 13an amaitzen da.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

#### **9. Eskaintzen irekiera:**

a) Tokia: Orioko udaletxea.

b) Eguna: 2012ko apirilaren 19a.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.



## **9.- ONARTZEA EGOKI BADA, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, ORIKO ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO: ALTZARI KOMERTZIALEN ETA ALDAGELEN EKIPAMENDUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoek plegua, Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeke: altzari komertzialen eta aldagelen ekipamendua.

**2.- ARGITARATZEA** baldintza orrien laburpen hau, Sektore Publikoen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legearen 142. artikulua xedatutakoaren arabera:

### **1. Erakunde adjudikatzailea:**

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza–Kontu-hartzailtza.

### **2. Kontratuaren helburua:**

- a) Helburuaren azalpena: Orioko arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentroaren hornikuntza kontratatzeke: Altzari komertzialen eta aldagelen ekipamendua, baldintza teknikoek eta ekonomiko-administratiboen arabera egingo dena.
- b) Exekuzio epea: Epea: 2 hilabete

### **3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:**

- a) Tramitazioa: Oikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

### **4. Lizitazioaren kopurua:**

- 1 Lotea: Altzari komertzialak: 65.342,50 euro BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.
- 2. Lotea: Aldagelen ekipamendua: 70.469,60 euro BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.



## 5. Garantiak:

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren %5 (BEZ kanpo).

## 6. Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

## 7. Agiriak jasotzeko:

Espedienteko dokumentazioa Orioko Udaleko Idazkaritzan aztertu daiteke.

## 8. Eskaintzak aurkezteko:

a) Epea: 15 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailertzan. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

## 9. Eskaintzen irekiera:

a) Tokia: Orioko udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo asteko ostegunean. Egun hori lan eguna ez balitz, hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

## **10.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETA ELKARTEKO ARRAUNLARI PARALINPIARRAK LONDRESKO 2012KO PARALINPIAR JOKOETAN PARTE HARTZEARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Arraunketa Elkarteko Edorta de Anta arraunlari paralinpiarrak plaza bat lortu zuen iaz, 2012an Londresen egingo diren Paralinpiar Jokoetan parte hartzeko.

Erronka horri behar bezala erantzuteko, ezinbestekoa du entrenamenduak behar bezala programatzea eta hori zaila egiten zaio, bere entrenatzaile Juan Angel Garmendiak dauzkan lan ardurak direla-eta.



Orioko Udalak diruz laguntzen du proiektua eta, KIROLATZEN 2000 SL entitate merkantilarekin batera (entitate hori da Orioko udal kiroldegiaren hustiaperaren kontzesioduna eta bertan lan egiten du Juan Angel Garmendiak), ahaleginak egiten ditu Juan Angel Garmendiak aukera izan dezan bere lana malgutu eta bateragarria egiteko Edorta de Anta entrenatzen segitzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzaileak 2012ko otsailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ESKATZEA** Arraunketako Espainiako Federazioari ahal duen kolaborazio guztia, bai ekonomikoa eta bai baliabidezkoa, Orioko Arraunketa Elkarteko Edorta de Anta arraunlari paralinpiarren entrenamendu eta prestaketari dedikazio handiagoa eskaintzeko, aukera izan dezan 2012an Londresen egingo diren Paralinpiar Jokoetan behar bezalako baldintzatan lehiatzeko.

**2.- BIDALTZEA** Arraunketako Espainiako Federazioari udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiri administratiboa, jakinaren gainean egon dadin eta horren arabera joka dezan.

Aztergai zerrendaz kanpo eta, aldez aurretik, gehiengo absolutuz, urgentziakotzat jo ondoren, udalbatzarrak honako erabakiak hartu ditu:

## **12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ, BILDU ETA ORAIN TALDE POLITIKOEK AURKEZTUTAKO MOZIOA SAHARAR HERRIAREN ALDE.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

### **OTSAILAREN 27AREN AURREAN: SAHARAR HERRIAREN ALDEKO MOZIOA**

*Orain dela bi urte eta erdi NBEk Mendebaldeko Sahararako ordezkari berezi izendatu zuen Christopher Ross estatubatuarra. Orduan eta, batez ere, 2010. urtearen hasieran, Magrebeko hainbat tokitan bilerak egin eta gero, Marokok eta Fronte Polisarioak berriro hasi zituztenean horrenbeste hilabeteetan etendako elkarrizketak, itxaropena piztu zen sahararren artean. Zoritxarrez, azken urtean, itxaropen izpi haiek desagertu egin dira, Marokok berriro ekin baitio errepresio politiko bortitzari, nazioartearen isiltasuna eta konplizitatea baliatuta.*

*Marokok behin eta berriz urratzen ditu Mendebaldeko Saharako populazio autoktonoaren giza eskubideak: herritar babesgabeen kontrako erasoak, atxilotetak, torturak, bortxaketak, desagertetak edo deportazioak... Saharar herriaren borondatearen kontra, Marokok bere autonomia-plana bultzatu nahi du eta ez ditu aintzakotzat hartzen NBEk Mendebaldeko Sahararen autodeterminazioaren eta independentziaren alde hartutako erabakiak. Benetako genozidio baten aurrean gaude.*



*Adibideak ez dira falta: Marokoko poliziak, esate baterako, bortxaz desegin zuen, 2010eko azaroaren 8an, Gdeim Izik saharar kanpamendua, neurri gabeko triskantza eraginez; gogoan daukagu, baita ere, iazko urriaren 23an hiru nazioarteko kooperatzaile bahitu zituztela (Rosella Urrea, Enric Gonyalons eta Ainoa Fernandez de Rincón) eta, geroztik, ez dugula haien berririk izan.*

*Ekintza bortitz horien aurrean, Espainiako agintariek Marokoren tesian babestu dituzte. Gogoan izan behar da Espainiako gobernuak dela errefuxiatu kanpamenduak izatearen arduraduna eta, badakien arren nazioarteko laguntza ezinbestekoa dela han baldintza minimotan bizitzeko, dei egin die kooperatzaileei kanpamenduetatik alde egiteko.*

*Azpimarratzekoa da, 36 urte pasa eta gero, Espainiako estatua dela Mendebaldeko Sahararen administratzailea, nazioarteko legeen arabera. Portugalek, esaterako, jarrera egokia izan zuen Ekialdeko Timorren deskolonizazio prozesuan; Espainiak, aldiz, Mendebaldeko Sahararen kasuan, bestaldera begiratzen du eta Marokok egiten dituen giza eskubideen eta nazioarteko legeen urraketa guztiak onartzen ditu.*

*Horren guztiaren aurrean, Orioko Udalak honako hau erabakitzen du:*

**1.- SALATZEA** Mendebaldeko Saharan behin eta berriz gertatzen diren giza eskubideen urraketa guztiak.

**2.- ELKARTASUNA AGERTZEA** Rosella Urrea, Enric Gonyalons eta Ainoa Fernandez de Rincón kooperatzaileen familia eta lagunei, bizi dituzten momentu gogor hauetan, eta hirurak berehala aska ditzaten eskatzea.

**3.- BABES EMATEA** Mendebaldeko Sahararren ordezkariak Orioko udaletxean otsailaren 27an, 12:00etan, antolatu duten ekitaldiari.

**4.- Orioko udaletxeko mastan Mendebaldeko SAHARAREN BANDERA ZINTZILIKATZEA** egun horretan, elkartasun eta babes seinale gisa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAI EZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** EAJ, BILDU ETA ORAIN talde politikoek aurkeztutako mozioa saharar herriaren alde, goian jasota dagoen bezalaxe.

**13.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO AITORPEN INSTITUZIONALA, DATORREN MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNARI BURUZ.**





Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak, hitzez hitz, honela dio:

## **MARTXOAK 8KO ADIERAZPENA**

*Martxoak 8, Emakumeen nazioarteko Eguna hurbil daukagun honetan, Orioko Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.*

*Aldaketa garaia bizi dugun Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezen politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.*

## **ORIOKO UDALAK BULTZATUKO DUEN POLITIKA FEMINISTAK HONAKO HAU KONTUAN IZANGO DU:**

*Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.*

*Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako.*

*Politika feminista emakumeon eskubideetan oinarrituko da. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu.*

*Politika feminista emakumeen gidaritzan eta parte hartzean bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Hauen parte hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbideratuko du.*

*Espezifikoki landuz baina zeharkakotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista kontuan izango dugu*

*Bukatzeko, Orioko Udalak mugimendu feminista antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.*

*Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian marrazten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**



**ONARTZEA** Bildu talde politikoak aurkeztutako aitorten instituzionala, datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta alkateari galdera egiten dio DV egunkarian argitaratutako berri bati buruz. Orioko herrian laster zaborra biltzeko atez ateko sistema ezarriko dela zioen berri horrek eta EAJk jakin nahi du ea hori horrela den. Alkateak erantzuten dio, esanez DV egunkariak gai horri buruz argitaratutakoa ez dela guztiz zuzena eta horren froga dela Orioko alkatea ez zela agertzen informazio harekin batera zetorren talde-argazkian. Alkateak azaltzen du berak esan zuela Orioko Udalean atez ateko sistema ezarriko zela etorkizunean, luze gabe, baldin eta udalbatzarrak hori erabakitzen badu, gaia eztabaidatu ondoren eta dauden alternatiba guztiak aztertu ondoren.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du berriro hitza eta alkateari galdetzen dio ea sinatu duen, Orioko Udalaren izenean, herrian zaborra biltzeko atez ateko sistema ezartzearekin bat egiteko idatzi edo manifesturen bat. Alkateak erantzuten dio ezetz, ez duela gai horri buruzko inolako idatzi edo manifesturik sinatu.

Azkenik, Miriam Uranga alkateordeak hartzen du hitza eta, Orain taldearen izenean, adierazten du bere talde politikoak, hauteskunde-programan azaldu zuen bezala, segitzen duela pentsatzen Orioko herritarrei eman behar zaiela hitza eta kontsulta edo erreferendum bat egin behar dela gai horri buruz, herriak erabaki dezan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuek hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**